

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

Iragarkia

Azpeitiko Udaleko Osoko Bilkurak 2025eko otsailaren 4ean egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hauek hartu zituen:

Lehenengoa. Udaltzaingoko Zerbitzuko Agentearen lanpostua betetzeko hautaketa prozedura egiteko Zumaiaiko Udalaren aldeko kudeaketa-gomendioa onartzea.

Bigarrena. Onarpen horren adierazle gisa, Azpeitiko Udaleko Alkatea ahalduntzea Zumaiaiko Udalaren alde egindako kudeaketa-gomendioa sinatzeko.

Hirugarrena. Erabakia Zumaiaiko Udalari jakinaraztea.

Iragarki eranskinean jasota dago kudeaketa-gomendioa eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3.a) artikuluan ezarritakoa betetzeko argitaratzen da.

Guztiek jakin dezaten adierazten da.

Azpeitia, 2025eko martxoaren 13a.—Nagore Alkorta Elorza, alkatea. (2217)

ERANSKINA

Hitzarmena, Azpeitiko Udalak Zumaiaiko Udalari egindako Kudeaketa-Gomendioa formalizatzeko dena, Azpeitiko Udaltzaingoaren Zerbitzuko Agente plaza bat edo gehiago hautatzeko prozesua egiteko, Zumaiaiko Udalak horretarako abiarazten duen prozeduraren arabera.

Zumaian, 2025eko otsailaren 28an.

BILDUTA

Alde batetik, Nagore Alkorta Elorza anderea, Azpeitiko Udaleko Alkate-Udalburua.

Bestetik, Iñaki Ostolaza Esnal, Zumaiaiko Udaleko Alkate-Udalburua.

Azpeitiko eta Zumaiaiko Udaletako korporazioek, gehiengo osoz, 2025eko otsailaren 4ean eta 2025eko otsailaren 27an egindako osoko bilkuretan hartutako erabakien indarrez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2.h) eta 123.1.j) artikuluen babesean, bi alderdiek toki-erakundeen izenean eta ordezkaritzan jardun dute.

Alderdiek elkarri aitortzen diote hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa. Hori dela eta,

HAU ADIERAZTEN DUTE

Lehenengoa.

Azpeitiko eta Zumaiaiko Udalek, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikuluan xedatutakoaren esparruan, erabaki dute, Zumaiaiko Udalak, era-

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Anuncio

El Pleno del Ayuntamiento de Azpeitia, en sesión celebrada el día 4 de febrero de 2025, adoptó, entre otros, los siguientes acuerdos:

Primero. Aprobar la encomienda de gestión al Ayuntamiento de Zumaia para la realización del procedimiento selectivo para la provisión del puesto de Agente del Servicio de Policía Local.

Segundo. Facultar a la Alcaldesa del Ayuntamiento de Azpeitia para la firma de la encomienda de gestión a favor del Ayuntamiento de Zumaia como indicador de dicha aprobación.

Tercero. Notificar el presente acuerdo al Ayuntamiento de Zumaia.

La encomienda de gestión se recoge en el anexo al presente anuncio y se publica en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 11.3.a) de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Lo que se publica para general conocimiento.

Azpeitia, a 13 de marzo de 2025.—La alcaldesa, Nagore Alkorta Elorza. (2217)

ANEXO

Convenio para la formalización de la Encomienda de Gestión del Ayuntamiento de Azpeitia al Ayuntamiento de Zumaia, al objeto de realizar el proceso de selección de una o varias plazas de Agente de Servicios de la Policía Local de Azpeitia, de acuerdo con el procedimiento que a tal efecto incoe el Ayuntamiento de Zumaia.

En Zumaia, a 28 de febrero de 2025.

REUNIDOS

De una parte, Dña. Nagore Alkorta Elorza, Alcaldesa-Presidenta del Ayuntamiento de Azpeitia.

De otra parte, D. Iñaki Ostolaza Esnal, Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Zumaia.

En virtud de los acuerdos adoptados por las corporaciones de los Ayuntamientos de Azpeitia y Zumaia, por mayoría absoluta, en sesiones plenarias celebradas los días 4 de febrero de 2025 y 27 de febrero 2025 al amparo de los artículos 47.2.h) y 123.1.j) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases del Régimen Local, ambas partes actúan en nombre y representación de las respectivas entidades locales.

Reconociéndose las partes capacidad legal suficiente para el otorgamiento de este Convenio, a tal efecto

MANIFIESTAN

Primero.

Los Ayuntamientos de Azpeitia y Zumaia acuerdan, en el marco de lo dispuesto en el artículo 11 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, que el

ginkortasun-arrazoiengatik, Azpeitiko Udaleko Udaltzaingoaren Zerbitzuko Agente plaza bat edo batzuk hautatzeko prozesuaren kudeaketa materiala egitea, Zumaiaiko Udalak horretarako hasitako prozeduraren arabera.

Bigarrena.

Zumaiaiko Udalaren ardurapean uzten den kudeaketa materiala honako jarduera hauetan gauzatuko da, kasu bakoitzean adierazten den irismenarekin:

- a) Hautaprobetan parte hartzeko eskabideak jasotzea eta prozeduran parte hartzeko ordaindu beharreko tasa kobratzea.
- b) Onartuen eta baztertuen zerrendak onartzekoa, lehenengo ariketa non eta noiz hasiko den adierazteko eta baztertutako izangaien zerrenda eta baztertzeko arrazoiak adierazteko ebazpenen proposamenak egitea.
- c) Hautaprobetako hautaketa-organoetako kide izan behar duten kideen proposamena.
- d) Ariketen garapen materialerako beharrezkoa den operatiba kudeatzea.
- e) Deialdietan eskatzen diren gaitasun- eta eskakizun-baldintzak egiaztatzen dituzten agiriak jasotzea.
- f) Hautaketa-prozesuko jarduerekin zerikusia duen beste edozein izapide, baldin eta izapide hori kudeatzeko agintzen bada, eta, betiere, ez ba da eskumenaren titulartasuna aldatzen, ez eta eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak ere.

Hitzarmen honen arabera egindako gomendioak ez du eskumenaren titulartasuna aldatzen, eta ez du eraginik izango agindutako betearazpen materialaren aurretik hartu beharreko erabaki juridikoen eremuan.

Hirugarrena.

1. Eskainitako agente-plazak indarrean dagoen lan-eskaintza publiko batean sartuta egon beharko dira, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70. artikulua aplikatuz, eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 52. artikulua horiek betetzeko ezartzen dituen gainerako baldintzak bete beharko dira.

2. Era berean, Azpeitiko Udaleko organo eskudunak hautaketa-prozesuko epaimahaiko kide bat eta bere ordezkia izendatuko ditu. Epaimahaiko kideen izendapena Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 22ko 1/2020 Legegintzako Dekretuan ezarritakoaren arabera izango da.

3. Hitzarmen honen xede den hautaketa-prozedura burutzeko, Zumaiaiko Udalak oinarri arautzaileen proposamena egingo dio Azpeitiko Udalari, honek onartu ditzan, egoki iritziz gero.

4. Zumaiaiko Udalak prozeduran sortzen diren alegazio, txosten eta errekursoen berri emango dio Azpeitiko Udalari, bai oinarri dagokienez, bai gainerako izapide-egintzei dagokienez.

5. Zumaiaiko Udalak konpromisoa hartu du epaimahai kalifikatzaileak Azpeitiko Udaleko dagokion organoari, lehentasun-ordenaren arabera eta deitutako plaza guztiak bete arte, administrazioetako polizia-kidegoko destinoa aukeratu duten izangaiak izendatzeko proposamena egiteko.

6. Zumaiaiko Udalak, Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, prozeduraren deialdia egin duten toki-administrazioetako plazak barne hartzen dituzten hautaprobetarako epatzea argitaratzeko aginduko du, ekainaren 7ko 896/1991 Errege Dekretuaren 6.1

Ayuntamiento de Zumaia lleve a cabo, por razones de eficacia, la gestión material del proceso de selección de una o varias plazas de Agentes de Servicio de la Policía Local del Ayuntamiento de Azpeitia, de acuerdo con el procedimiento que a tal efecto ha incoado el Ayuntamiento de Zumaia.

Segundo.

La gestión material que se encomienda al Ayuntamiento de Zumaia se concretará en las siguientes actividades con el alcance que en cada caso se señala:

- a) Recepción de solicitudes para tomar parte en las pruebas selectivas y el cobro de la tasa por participación en el procedimiento.
- b) Propuesta de las resoluciones y por las que se declaren aprobadas las listas de personas admitidas y excluidas y se señalen en el lugar y la fecha de comienzo del primer ejercicio, así como la relación de personas aspirantes excluidas, con indicación de las causas de exclusión.
- c) Propuesta de las personas que han de formar parte de los órganos de selección de las pruebas selectivas.
- d) Gestión de la operativa necesaria para el desarrollo material de los ejercicios.
- e) Recepción de los documentos acreditativos de las condiciones de capacidad y requisitos exigidos en las convocatorias.
- f) Cualquier otro trámite relacionado con las actividades del proceso selectivo cuya gestión se encomienda, siempre que no suponga alteración de la titularidad de la competencia ni de los elementos sustantivos de su ejercicio.

La encomienda realizada en virtud del presente convenio no produce cambio de la titularidad de la competencia, ni afecta a su ejercicio en el ámbito de las decisiones jurídicas que hayan de adoptarse con carácter previo a la ejecución material encomendada.

Tercero.

1. Las plazas de agente ofertadas deberán estar incluidas en una Oferta Pública de Empleo en vigor, en aplicación del artículo 70 del Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público, así como del cumplimiento de las demás condiciones que reza el artículo 52 de la Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco para la cobertura de estas.

2. Asimismo, el órgano competente del Ayuntamiento de Azpeitia designará un/a vocal del tribunal calificador y su sustituto/a. La designación de los/as miembros/as del tribunal se ajustará a lo establecido en el Decreto Legislativo 1/2020, de 22 de julio, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Policía del País Vasco.

3. Para llevar a cabo el procedimiento selectivo objeto del presente convenio, el Ayuntamiento de Zumaia elevará al Ayuntamiento de Azpeitia la propuesta de bases reguladoras para su aprobación, si procede.

4. El Ayuntamiento de Zumaia informará puntualmente al Ayuntamiento de Azpeitia de las alegaciones, informes y recursos que se generen en el procedimiento, tanto en cuanto a las bases como a los demás actos de trámite.

5. El Ayuntamiento de Zumaia se compromete a que el tribunal calificador eleve al órgano correspondiente del Ayuntamiento de Azpeitia, por orden de prelación y hasta el total de las plazas convocadas, la propuesta de nombramiento de las personas aspirantes que hayan optado como destino el cuerpo de policía de las distintas administraciones.

6. El Ayuntamiento de Zumaia, mediante Resolución de Alcaldía, ordenará la publicación del emplazamiento para las pruebas selectivas en la que se incluirán las plazas de las administraciones locales convocantes del procedimiento tal como esta-

artikuluaren ezarritakoari jarraituz. Horren bidez, toki Administrazio funtzionarioak hautatzeko prozeduraren oinarritzko arauak eta gutxieneko programak ezartzen dira.

Laugarrena.

Hitzarmen hau sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 18 hilabeteko iraupena izango du, betiere bi alderdiek kudeaketa materialaren gomendioaren beharra ikusten badute.

Aurretik aurreikusitako epea amaitu aurreko edozein unetan, alderdi sinatzaileek aho batez adostu ahal izango dute luzapena gehienez ere bi urterako luzatzea, 6 hilabeteko aurreabisuarekin edo iraungipenarekin.

Bosgarrena.

Hitzarmena aldatzeko, alderdiek aho batez adostu beharko dute.

Seigarrena.

Hitzarmen hau azkendu egingo da hitzarmenaren xede diren jarduerak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoiren bat dagoenean.

Suntsiarazteko arrazoiak izango dira:

- a) Indarraldia luzatzea erabaki gabe igarotzea.
- b) Sinatzaile diren guztien aho bateko akordioa.
- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzea.
- d) Deuseztasuna deklaratzeko duen erabaki judiziala.
- e) Legeetan aurreikusitako beste edozein arrazoi.

Alde batetik bestera ez da kalte-ordainik emango ez-betetzeagatik.

Zazpigarrena.

Hitzarmen honek ez du alderdien arteko kontratu-harremanik ekarriko, eta bere izaera batez ere administratiboa izango da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen Atariko Tituluaren VI. kapituluaren xedatutakoaren arabera.

Hitzarmen honetan aurreikusi ezin den guztirako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea aplikatuko da.

blece el artículo 6.1 del Real Decreto 896/1991, de 7 de junio, por el que se establecen las reglas básicas y los programas mínimos a que debe ajustarse el procedimiento de selección de los funcionarios de Administración Local.

Cuarto.

El presente convenio entrará en vigor al día siguiente de su firma y tendrá un plazo de duración de 18 meses siempre que ambas partes aprecien la necesidad de la encomienda de la gestión material.

En cualquier momento anterior a la finalización del plazo previsto anteriormente, las partes firmantes podrán acordar unánimemente su prórroga por un periodo máximo de dos años, con un plazo de preaviso de 6 meses o su extinción.

Quinto.

La modificación del convenio requerirá el acuerdo unánime de las partes.

Sexto.

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución.

Serán causas de resolución:

- a) El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga de este.
- b) El acuerdo unánime de todas las partes firmantes.
- c) El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por alguna de las partes firmantes.
- d) Por decisión judicial declaratoria de nulidad.
- e) Por cualquier otra causa prevista en las leyes.

No habrá lugar a indemnización alguna de una parte a otra por incumplimiento.

Séptimo.

El presente convenio no implicará relación contractual alguna entre las partes, siendo su naturaleza eminentemente administrativa conforme al os dispuesto en el Capítulo VI del Título Preliminar de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público.

Para todo lo no previsto en el presente convenio será de aplicación la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.